



Iturria: *Goldaraz'ko bersolaria'ren kontu eta bersoak*, Andres Astiz Oderiz (Franzisko Astizen edizioa). Príncipe de Viana, 1960.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AstizBersoak.htm>

## KONTU ETA BERSOAK

**Andres Astiz «Goldarazko bersolaria»**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## ARA NOLAKOA ZEN «GOLDARAZKO BERSOLARIA»!

1960'ko garagarrillaren amabotsgarren eguna.

Iruñatik idazti bat nere izenean.

«DIPUTACIÓN FORAL DE NAVARRA = Institución PRÍNCIPE DE VIANA="Sección para el fomento del Vascuence"», jartzen du idaizki-buruan.

Idaztia Diez Ulzurrun'tar Pedro Jaunaren izenpenakin dago; bere izenean, Tirapu'tar Franzisko Jaunaren eta beste lankide guzienean.

—Zer esango ote didate?

—«Euskal-sail onek iru urte dauzka; berso ta bersolarizaletasuna Naparro guzian piztu naian gabiltza; ta zuk maitasun aundiz bildutako, zure aitaren (G.B). "KONTU TA BERSOAKIN" liburu koskor bat ateratzea erabaki degu. Orretarako GOLDARAZ'KO BERSOLARI seme zintzoren itzaurretxo bat jartzea litzake gure asmoa...».

Deikunak asko pozten nau.

Baño, ez.

Andrés Astiz en BERTSO TA KONTUEN itzaurrekoa ez du bere semeak bakarrik egingo: elerti kontuetan ni ez bai-naiz nor...

Euskal-Akademiko Zuzendari, Azkue Jaunaren itzak jarriko ditut lenengo mallan, itzaurre egokienatako. Bere «Euskalerriaren Yakintza» liburutik artuta itz-itzez jartzea noa:

«Ipuin batzuen bealdean amabi aldiz Astiz baten izena irakurriko duzu. Goldaratz (Naparroako *basairritxo* bat da. Imotz-ibarrean) Goldararaz'ko semea zan. Larraun'en yakingai bila nenbilela, arrainketa ederrak, batez ere Baraibar ta Iribasen eginda gero, ibar aren



ondoko goialde batean, Latasara bidean, Goldaratz deritzaion irixko artan ipuiak ugari zekizan gizon bat bizi zala esan zidaten, emezortzi semealaben aita.

Gora ta gora, igo ta igo, ta an idoro nuen Astiz ume-tsu ta ipuintsua.

Astiro, inork baino astiroago, zekien berak buruan zituenak edasten eta, nik, itzez itz, erraz artzen nitien guztiak.

Laxter oartu nuen aren buruan gertatzen zan agi edo fenomeno bat.

Berak or ta emen ibilita, alakori ta onelakori entzunda, ipuin batzuk, geienak noski, euskeraz sartu izango zituen buruan; beste batzuk, bat edo beste beintzat, erderaz ere bai. Burutik atera bear zituenean, erderaz poliki zekielako edo, erderazko Sintaxiean yosita eltzen ziran nire belarrietara. Lenengo ipuinaren azkena-orduko ezagutu nuen aren buruko agitoa ta nik orduan esakera bat burutuarte itxaron ta gero euskeraz yosita banan banan paperatzen nituen...».

Itzaurre oneri, nik ere nere aldetik, bere bizitzako *egigai*, nere *oroipen* batzuek eta, azkenez, nere aitaren ezagunen *aipatzeak* oso laburki ezarriko dizkiot.

#### a/ EGIGAIK:

—Andrés Astiz Oderiz, Goldaraz —Naparroan— jaio zen 1863'ko garagarillaren lenengo egunean.

—Gaztaroan, Latasako ikastetxean ibilli zen. Gero, Bidaurretan, bere seniden etxean (gaur Iruñen daude) bere ezagutzak obegotu ta osotu zituan, batez ere erderaz ikasiaz.

—Ogeita sei urte zituala, Arruiz'ko Maria Argiñarena'kin ezkondu ondoren, bere bitartez Jainkoak bost seme eman zizkion. Aietatik oraindik iru bizi dira: Inazia, Pedro ta Severino.

—Gazte zalarik alargundu ta bigarrenez ezkondu zen Joxepa Arregi'kin. Au ere Arruiz'ko alaba. Beragandik amalau seme-alaba sortu zitzaizkion.

Ara emen *bizi deneen* izenak: Markox, Migel, Manuela, Franzisko, Mariano, Benita, Maria, Zenona, Nikolasa, Narzisa ta Juanita.

—1924'ko otsaillaren seigarren egunean, Goldaraz'ko jaiotzetik bizitza obeagora joan zan.

#### b/ NERE OROIPENAK:

Sail onetan nere anaietatik edoizeñek esan lezake nik baño geigo, 1919 lastaillan utzi bai nun nere etxea, Gabiriko (Gipuzkoa) Pasionisten bidea arturik.

—Gogoratzen naiz, bai, nere Maixu ta Zuzendariak bere buru azkar ta zorrotzaren jira-bira dotore ta aberatsakin parre-algaraka nola jartzen zituan...

—Gure etxeko sukalde zabalaren iskiñian ere gaur bertan oraindik berai begira nago, eta au da biotzaren barnean daukadan irudia: aulki zar batean jarrita, neguko arratsalde luzeak gozatu ta alaitzen, kontu kontari ta kantari... Ta au da arrigarriena: Jainkoak, Ama Birjinak, Aingeruak, lapurrak, abereak, moxorroak eta baita zugatzak ere, denak eta bakoitzak zun bere abots, arpegi-era ta keñu berea.

—Pillota lekuan ere ikustekoa zan, batez ere jokua beste errietakoa-kin zutenean, tanto bakoitza bersoz ornitutzen:

—Bat, eta bate ez...

—Ateako're ez...!

—Goldaaztarrak amalau,

Baraartarrak, sei...

—Animo, erritarrak:

Bentaja orrekin, sei!

—Goldaaztarrak oitabi,

Baraartarrak amiru...

—Gaur galduk zaate

ekarri onea diru!

#### c/ AIPATZEAK:

Zer esan badut emen, Imotz, Larraun, Atez, Ultzama ta Besaburuko aran-muñotetan ezagutu zuten denak daude GOLDARAZ'KO BERSOLARIA larrosa ta lore politez jantzi nai.

—Inguru guzian, etzen gizon atsegingarriagorik.

—Erriko jaietan, Andrés Astiz ez bazan, dena alperrik...: etzan festarik.



—Baraarko senide batek denbora gutxi dela esan zidan: Zure aitak gure etxera etortzen utzi zuanetik, akitu ziren gure jaiak.

—Adimen zorrotz ta zurra zuan. Lagun arteko bear eta ez-bearrik ere iñork ez bezela ezagutzen zituau. Inguruetako errietan sendietako kontu eta goraberek konpontzeko Andrés Astiz lagun euki ezkerro etzan beste bearrik...

—Edozein tokitan, an zan, beti pozik, on egin nairik, gizon biguin ta kristau zuzen be-zala.

Ara nolakoa zen gure aita!

—BERTSO TA KONTU auetan bere buru argi ta alaitsuko dirdita-sun pixkabat irakurleak ikusi lezake. Kontu geigo ere badira, baño gure ardura gutxiegiak ez digu biltzen utzi.

—Lantxo oiek ukitu txiki batzuek badituzte tartean, baño dena seme baten lotsa ta itzalpean egiña.

Eta, nere aita maitearen biztelesti koxkor ta otz au bukatzera noa.

—Nere eskerrik bizienak len esaniko «PRÍNCIPE DE VIANA»-ren Jaunentzako. Berak izan dira nere lagun onak eta baita euskerarenak ere. Ta ez da auentzako bakarrik nere eskertasuna, baita Naparro guzian nere aitaren oroipenean egindako zinkunde edo biotz-agurtzan sartu diranari ere.

FRANZISKO ASTIZ ARREGUI  
(Aita Andrés, Pasionista)

## KONTUAK



## JOXEPA TA SENARRA

Gizon bat aste guziko ioaten zen lanera. Larunbatean etxerutzen zenean, bere emazte Joxepa beti minkor ta aika arkitzen zuen.

—Zer dun beti orrela? —galde egiten zion senarrak.

—Estomagoko mina, ez ianak eta edanak egina. Bestelako alabearra!

Nexkak aitari bein:

—Aita —esan zion—, aita: amak eztu minik, ttanta edaten du egunoro ta egunoro kantari egoten da.

Aita itz auek entzuteaz ilun gelditu zen. Astelen goizean goiz iaiki ta oi zituen lanetara ioan-bearrean beitian izkutatu zen. Zortzietan amak nexka ardo eske bidali ta kantari asi zen:

Arraultze-pare batekin,  
magra goxo batekin,  
lau pintako batekin,  
nere nexkarekin;  
zeinen ederki gizonaren diruarekin  
raitarai, raitarai, raitararai...!

Senarrak kanta au aditu zuenean, sukaldera irten ta emazteari:

—Joxepa —esan zion—: kanta zagun.

Senarra ikusi ta arriturik:

—Ai, au estomagoko mina; ez ianak eta edanak egina. Bestelako alabearra! —esan zuen Joxepak.

—Petral ori! Kanta zagunn, nai ta nai ez.

—Kanta zagun bada —erantzun zion.

Eta, senarrak:

Arraultze-pare batekin,  
magra goxo batekin,  
lau pintako batekin,  
nexkarekin ta aitarekin,  
eta senar gaixoaren azken diruarekin,  
...eta, Adios!, banijoa betiko!

Joxepak negarrari eman zion, nexkak negarra ta zinkurin ari. Aitak urrikalduta esan zion emazteari:

—Geiago ardorik edaten ezpadun, aberastuko gaitun.

Ala egin omen ziren.



## IRU ANAI

Aberats batek iru seme zituen. Bat abogadu egin zuen, bestea mediku; irugarrenak etzuen nai buruzpiderik artu ta aitaren ondoan bizi izan zen aitaren egunetan. Iru semeeri aitak ogeina mila duro utzi zien. Irugarren seme orrek laster jan zituen bere ogeirak. Anai abogaduairengana joan zen orduan eta esan zion:

—Nik jan ttiat diru guziak eta ekatzak mila duro.

Anaiak esan zion:

—Mutil, zer egin duk?

—Jan ta edan ta jostatu.

—Nere dirua ere gastatu egingen duk ik.

—Ekarri mila duro isil-isilik.

—To, bada; bainan ez etorri geiago.

Mila duroak gastatu zituenean, joan zen anai medikuarengana ta esan zion:

—Nere diruak eta anaiaren mila duroak gastatu nittian. Ik ekatzak beste mila.

Anai medikuak isil-isilik eman zizkion itz auek gaineratuz:

—Ez etor geiago.

Laguntzat azti bat artu ta gauza asmakorrak ikasten asi zen.

Beste zerbaitez gainera, au ere ikasi zuen: emakume aur egitekoak noiz alaba egin bear zuten.

Errege batek beregana deitu ta esan zion:

—Nere emaztea aurdun dago. Semea ala alaba duen asmatzen badezu, ogei mila duro emain ttizut, lepoa kenduko dizut bestela.

Mutil orrek esan zion:

—Ekarri zure emaztea, ikus dezadan.

Ekarri ziotenean, erregearen emazteari esan zion berak:

—Ea, andretxo: zoazi pixko bat oinez. Orain itzuli ta etorri. Aski da.

Eseri zaitte.

Eta erregeari esan zion:

—Zure emazteari, aurrera dijoala, semetxo bat ikusi diot; itzulita eldu delarik, alabatxo bat.

Erregeak esan zuen orduan:

—Eraman mutil au nere jauregiko leku on batera, eman jana ta edana nai duen guzia; eta nere andreak semea ta alaba egiten ezpaditu, lepoa kenduko zaio.

Andik iru ilebetera erregeren andreak gabeko amaiketan alabatxo bat egin zuen. Errege ilundu zen, Semea nai baitzuen. Deitu zuen mutil ori ta esan zion:

—Orra nolako gezurrak esan ttuzun; alabatxo bat egin du andreak.

Mutilak erantzun zion:

—Alabatxo bat zegoela aurretik esan nizun, eta atzetik semetxo bat.

Laster etorriko da au ere.

Ala jolasean zeudela seme bat ederra ekarri zioten erregeri.

Orduan erregeak gorako bat egin zuen pozez mutillllari esan zion:

—Tori berrogei mila duro eta nere lezietara zoazi.

Egia baldin bada, zakuan sartu.



## MIGUEL PREMIN

Aita batek, bere buruari zar iritziz, seme azienari esan zion:

—Miguel Premin: ni ta etxeko andrea zartu gattuk eta bizi gerala etxeko andre bat ikusi nai diagu. Ik, semerik zarrena aizen orrek, ezkondu egin bear duk.

—Norekin? Neskatxarik eztut nik ezagutzen...

—Bedaioko borda batean neska bizkor bat zegok; ioan adi arengana ta esaiok: —Praiska; nire gurasoak etxekoandre berri bat bear dugu-la,diote. Nai, al zenuke zerorrek gure etxeko andre izan?

Semea berealaxe gertatuta aitaren esana betetzera ioan zan. Neska etzegon ordea etxean, errotara lakariarekin etxekoak bidali baitzuen. Laster etorriko zela ta etxoiteko esan zioten. Berak ezetz, artaiorrara ioan bear zuelakotz beste batean etorriko zela. Aitak erristan egin zion etxoin etzuelako.

Andik laster berriz bidali zuen etxekoandre bila. Bidez zijoala alor batean ikusi zuen Bedaioko neska bera. Oiu bat egin zion neskatxak:

—Aizak mutil, i al aiz lengo batean nere bila etorri intzena?

—Bai, ni naun. Zer esan diet aitari ta amari?

—Baietz.

—Ongi zegon —esanez— bere etxera itzuli zen. Urrengo iaieguna eldu zenean, aitasemeak Bedaioko bordara ezkontza erstera ioan ziren. Guziok baietzean zeudela ikusirik, senargaiaren aitak:

—Ezer emain diozute? —galde egin zuen.

—Bai —esan zun neskaren amak—, alaba bakarra dugu eta ziñez maite ere bai. Dirutan ontzako bat emain diogu, goatze baten erdia ere bai ta gainera bei gorriin txekorra.

Aitak orduan semeari:

—Kontentu aiz, Migel Premin?

—Ni, bai, aita. Emen ezta andrea bakarrik. Gauzak ere badere.

San Migel irugarrenerako, eztaia gertatzea erabaki zuten. Egun ori eldu zen eta, aideak etorriko zirela iakinarren, Migel Premin osto-motxa egitera barrutira ioan zen.

Aitak au iakin zuenean, bigarren semea bidali zion etortzeko esatera, andregaiaren eske ioan bear baitzuen.

—Ai, anai anai —erantzun zion Migel Premiñek—, ik ekarri, naiz nik ekarri, ekarria izain duk. Nik osto-motxa egin bear diat.

Osabak ioan bear izan zuten senargaia etxeratzea. Aitak erristaturik, ongi iauntzeko eta lepoan ttattarra iartzeko egindu zion.

Iaunzten asi zen, etzuen ordea gauza onik egiten. Barneko praka zuriak txamarreta bezala besoetan sartzen ari zela deadar egiten zuen:

—Aita, aita, i nolako txamarreta iarri didazu emen?

Aitak iauntzi bear izan zuen eta amak lepoko ttattarra ezarri bear.

Orrela joan ziren etxekoandre berriaren eske. Onen etxera eldu zirenean, irrintzi bat egin zuen Migel Premiñek atalondoan:

—Ni bai gaur errega naizela! Zeinen ederki aitak eta amak iarri nauten!

Neska atarira ietxi zenean, Migel Premiñek esan zion:

—Gaur ongi apainduta, biar zatak eta partanak; gaur axuria ian, ta biar baba beltzak eta taloa. Orrelaxe bizi bear.

—Zu ibiliko al ziñake beti orrela apainduta? —zion andregaiak?

—Ni bai, ta pozik ibili ere. Ai, gaur ilunduko ezpalu!

Gosaritan iarrita mutilak etzuen ezertxo ian nai. Apainduriakin ian gabe ere pozik zegoela esan zuen.

—Txoroa zarala esain dute. Jan zazu, Migel Premin. Zuk eta nik gaur isil-isilik egon bear dugu.

Osaba batek, olako neska isil burutsu zurra zela ikusirik Migel Premini esan zion:

—Onek bear lizkek ire prakak eta ik orren gonak.

—Gaur beintzat ez —erantzun zion illobak—; gaur neronek bear ttut soinean dauzkidan iauntziak, biar goizean emain ttiot oni, ala bear bada.

Guziak pozik ioan ziren, etxeko andre ona etxeratu zuelako.



## MORU AGINTARI BAT ETA FRAILE LEGOA

Moruen agintari andi batek komentu bateko fraileak atera nai zitun.  
Bere buruak etzion orretarako biderik ematen eta atso azti batengana ioan zen.

Atso orrek zortzi egun barru bide ori erakutsiko ziola esan zion.

Berriz alkar ikusi zutenean, aztiak:

—Zoaz komentu orretako nagusiarengana eta iru galdera auek egin zaizkiozu:

Lenbizikoa, zenbat denboran eman dezaket nik munduari itzuli osoa?

Bigarrena, nik zenbat balio dut?

Irugarrena, zer da nik orain buruan dudan ustea?

Morua pozik ioan zen fraile nagusiarengana. Iru galderak egin ta ilabete bat eman zion erantzuteko, itz auek gaineratuz:

—Igarten ezpaduzu, lepoa moztuko dizut, neronek moztu ere; ta zure lagun guziak komentua utzi bearko dute.

Ikasten eta gogoketan ari an gaineko egunetan fraile nagusia. Geroago ta larriago, deus ezpaitzukean asmatu.

Etzuen ez ian ez lorik egiten. Gaizki iarri zen, oeratu bearreko.

Fraile legoak zer zuen galde egin zion.

Etzion nagusiak bere barrena zabaldu nai, alperrekoa izango zelakotz.

Legoak berriz ta berriz egunoro:

—Zer du, aita? —esaten zion.

Egun batez arriari esanta ere ats artzen zala ta moruak eginikako iru galdera aien berri eman zion.

—Neronek asmatuko ditiot —esan zion legoak.

Ilabete igarota morua agertu zenean, legoa buruzagiaren iauntzia soinean zuela iautsi zen berarengana. Bereala asi ziren galde erantzunetan.

Morua:

—Zenbat denboran eman dezakeot nik munduari itzuli osoa?

Legoak:

Iarri zaite iduzkiaren gainean ta ogeita lau orduz emanen diozu.

Morua:

—Zenbat balio dut nik?

Legoak:

—Judasek ogei ta amar dirutan saldu zuen errege guzien Errege, zeru ta lurraren iabea. Zuk ogeita bederatzi baino geiago eztuzu balio.

Morua:

—Zer da nik orain buruan dudan ustea?

Legoak:

—Zuk uste duzuna? Buruzagiarekin izketan ari zarala uste duzu eta lego ellostako tonto batekin ari zara.

Morua orduan bere barnean esan zuen:

—Tontoena onelakoa denean, zer ote dira besteak? Eztut ezertxo nai —ta komentutik ateratu zen.





## SOR BATEN ERANTZUNAK

Gizon sor bat idi pare batekin baba eraiten ari zen. Ondoan beor bat eta mandokoa zeuzkan. Berak ezagutzen etzuen gizon bat eltzen ikusi zuen eta bere artean zion:

—Gizon orrek ni sorra naizenik eztaki noski. Zer galde egingo, ote dit?

«Zer eraiten dozu?», esango dit. «Baba» erantzungo diot. «Zenbat?». «Iru erregu». «Beor ori norena da?» galde egingo du. «Nerea», nik erantzungo. «Ta mandokoa?». «Baita mandokoa ere». Gero esango dit: «Putzu au noraiño da?». «Koxkor onetaraiño», erantzungo diot nik. (Bere eskue-tako akullua koxkorduna zan). «Madotz'a nondik joaten da?» galde egingo du gero. «Orroko aldapa ori goitik». «Goiko gainetik urbil dago?». «Goiko gaina itzuli ta berealaxe».

Gizon sorraren ustez ok izan bear zuten bien arteko galde-erantzunak. Bideztiak, urbildu zeneko, biguñik itz gozo ok zuzendu zitien:

—Jainkoak egun on dizula.

—Baba —erantzun zion sorrak.

—Ari zara gogotik? —bigarren galdea.

—Iru erregu.

Bideztiak orduan itz ok esan zituen bere artean:

—Onek makur esan dittit gauzak. Eroren bat edo zer ote da berau?

—Beor ori nerea —esan zion sorrak.

—Otsoak jango al dik ba.

—Bai ta mandokoa ere.

—Akullo ori kenduta, atzeko aldetik sartuko diat.

—Koxkor onetaraino.

—Inpernuokoak eramango al au!

—Orroko aldapa ori goitik.

—Tximistak erreko al au!

—Goitiko gaina itzuli ta berealaxe.

## ASTOA ISILTZEKO

Errotari bati astoak bere arrantzakin etzion gabez lorik uzten.

Abogadu batengana, zer egin ote zezakean galdetzer, bein agertu zen.

Erremedio erraza erakutsi zion abogaduak.

Atzeko isatsetik zintzilika arri bat iluntzean jartzen zion eta urren goizerarte etzuen astoak arrantzarik egiten ta errotariak ederki lo egiten zuen.



## BEI BATEN EBASLEA

Gizon batek bei bat lapurtu zuen. Ogeita bost urteko Ceutara eramantzen zuten, au baitegian izateko. Etxean emaztea ta mutiko gaztetxo bat utzi zituen. Ogeita bost urteak bete zituztenean etxe-aldera etorri ta lenbizi ikusi zuen gauza artalde bat izan zan, gizon gazte baten ardurapean.

«Gure etxeko ardiak ote ttok?», esan men bere barnean.

Berengana urbildurik, artzaiari:

—Norenak dire ardi ok? —galde egin zion.

—Joxepa Goñirenak —erantzun zuen ark. (Ceutatikoaren emaztea zen Joxepa Goñi).

—Joxepa orren semea al aiz?

—Bai.

—Aita, non dek?

—Baitegian.

—Zergatik?

—Beia ebatsi baitzuen larretik.

—Orain pagatuko ttik larrutik.

—Bai, nai badu, neregatik.

Semeari au entzunda parrez joan zen etxera aita. Atalondoan Joxepa topatu zuen eta esan zion:

—Semearekin bertsoetan ari izan naiz, Joxepa.

—Ogeita bost urte urruti igarota semearekin bertsoetan! Ori da, ori, gibela, ori barruna! Etorri zaitea etxera, gaztañak eta taloa dauzkat eta alkarrekin jango ditugu aspaldiko orde.

## ELURRA TA SORGIÑAK

Lenbiziko elurra egin zuenean sorgiñak ikaratuta zulora ioan ziren.

Aita zar bat, zazpitan eun urte zituen aita, egoten zen zulo artan, itsutua.

Gauza zuri bat zerutik erori zela esan ziotenean.

—Atera nazazute airean kanpora, eta balanka batekin jaso nere betazal bat, gauza berri ori ikusi al izateko.

—Galduak gara —esan zuen zar onek, elurra ikusi zuenean—.

Galduak gara:

Iaio da Jesus!

Bera ta bere lagun guziak, zar ta gazte, zulora marrekkaka joan ta an il ziren.



## GETARIAKO OLIOA

Gizon bat olio saltzen Getariatik Donostiara zoaiela, bidean egarriturik, tabernara, barnea bustitzera ioan zen.

Bitartean asto olio zamatua atalondoan zeukan, burnizko uztaitxo bati lotua.

Ordu laurden buruan berriz bidean asi zen, len baino beroxeago. Aisago ibiltzeko, txamarreta, soinetik erantzita, astoari gainean iarri zion.

Noizean beinka:

—Arre, astoa! —esan ta aurrera zoain beti.

Aldatz gora zoaila txamarreta bat arkitu zuen, ta:

—Orain bi txamarreta! —esanez, astoari iarri zion ura ere.

Berriz beste bat lurretik iaso ta astoari iarri zion.

—Orain iru txamarreta —esanez.

Amar aldiz beste onenbeste gertatu zitzaion. Zubi bat igarotzean, txamarreta lurretik iasota ibaira bota zuen, itz auek esanez:

—Zertako dittiak nik onenbeste txamarreta?

Eta txamarreta gabe sartu zen Donostian olio-saltzalea; bat izan zen, bakar bat, ainbeste aldiz asto gainetik erori zena.

## JUAN MIGELEN ATORRA

Atorra bakar bat zuen Juan Migelek.

Egun euritsu batean busti zitzaion eta oatzerakoan laratzean iarri zuen. Urrengo goizean erreta arkitu zuen.

Andre Mariaren eguna zan, ta elizara ioateko, emaztea bere adiskide batengana atorraren bila bidali zuen.

—Bakar bat dut eta ura soinean daukat —erantzun zuen adiskide onek.

—Juan Migel: atorra gabe ioan bear izango duk mezarata.

—Ez al din eman astakaikuak?

—Bakar bat duela eta hura soinean daukala esan dit.

—A ze pulamentuko gizona, atorra bakarrez dagoena!!! —esan zuen orduan Juan Migel atorra gabeak...



## MUKI TA AZDUNA

Martin (mukia beti zerion gizon bat) eta atza zuelako beti arraskatzen ari zen beste bat erri batekoak ziren; erri beteko ta adiskide.

Bidez elkarrekin zoazin egun batean apustu egin zuten: zein luzarago egon, bata mukia kendu gabe, arraskatu gabe bestea.

Bide bat barrena bizkor zoazila bidekurutze batera iritsi ziren.

Azdunak mukizuari galde egin zion:

—Non barrena ioan bear diagu?

—Egon asmatu arte —erantzun zion mukizuak—, naiz ortik naiz emendik (mukiak ezker-eskuin, bi eskuz kenduz) gure asmoa beteko diagu.

—Berdin zaidat —esan ta, eskugainak arraskatu zituen besteak.

## PINTAZALEAK

Bi aragoar aupadaka ari ziren bein, zeinek ardo geiago edan, beste biri apustu egiteko gertu zeudela. Aupada auek bein ta berriz entzun ta berengana irrimirrika bi andretto atera ziren.

—Gu ere zaletto Iainko-ak egin genduen ta tokitan zerate, gizonak.

Zurrut batak, zurrut besteak, amabosna pinta edan zituzten: lauren artean iruetan ogei.

Aragoar bata lurrera erori zenean, bestea berdizka asi zen ibiltzen.

Bi andrettoak, apustua irabazirik, atari-portzekoa eskatu zuten: beste pinta bana.

Edaten ari zirala, galde egin zion batak besteari:

—Ongi gaude Kattalin?

—Oso polliki! —besteak erantzu zuen.

Ta geroxeago oinen gainean ioan ziren etxera.



## BERSOAK

### ETORRI BEARKO DU TRIPOTA JATERA!

Azpiroz'tar Manuel Jauna. Odeizko Apez egin zutenian, bere iloba, Andres Astiz'ek bidali zion zorionagur xamur eta gozo au, dena ber-sotan.

Berso auek ez daude osorik.

Lenbiziko karta-papera galdu zen eskuz esku ibillita edo. Baño zor-tzi berso polit ok beñepin ez dira galdu, eskerrak Lekunberriko Zenona Goldarazena'ren buruari. Berak gorde ditu buruan ainbeste urtez, eta berak erakutsi dizkigu.

Don Manuel Azpiroz  
 Odeizko apeza  
 eskuz esku doaien  
 karta au artu beza.  
 Aspaldian egiñik  
 zedukan ametsa  
 pozez gaur betetzen du  
 berrorren biotza.

Nolabait festatzeko  
 orren ibillera,  
 egun ederrerako  
 elkartuko gera.  
 Presto egonen dira  
 koxta ta platera.  
 Etorri bearko du  
 tripota jatera!

Aitzaki bat bakarra  
 aski du berekin;  
 eizera atera bedi  
 bere zakurrakin.  
 Asko poztuko gera  
 denok berorrekin;  
 zakurra aseko da  
 axal-ezurrekin.



Illek ogei ta amar  
astelenarekin,  
txerria ilko degu  
guk egun orrekin;  
pakean afaltzean  
tripuliñarekin,  
*Brindo!* egiñen dugu  
pattar goxoakin.

Baldin ez bazaio ongi  
astelenetikan,  
guri berdintsu zaigu  
ostegunetikan;  
txerri gaixoa pozik  
gizentzeatikan,  
egun batzuz bizia  
luzentzeatikan...

Bakarrik ez bada trebe  
ona etortzeko,  
bi lagun artu bitza  
ongi laguntzeko:  
itsua alde-batetik  
bidia ikasteko;  
mutua beste-aldetik  
kontuk kontatzeko...

Ogi eta ardoa  
gazta zarrarekin,  
ibilli ditzakete  
sasoi onarekin;  
olako gozamenik  
ez dago gurekin,  
guri tokatzen zaigu  
beti urarekin...

Esan dutan esana  
berriz esateko  
ia konpontzen al den  
ona etortzeko,  
elkarrekin Jainkoai  
esker emateko,  
ta egun bat gozoa  
denok izateko.



## SABEL ALDE BATEKO BI SEME AINGERU

1895'garren urtean, Anjel Senosiain Zubillaga ta Maria Cruz Iriarte Arraiz, Larrasoña'ko senar-emazte ta GOLDARAZ'KO BERSOLARIA'ren aideak, seme bi, bikiak, izan zituzten. Baño egun gutxi barru, Jainkoak eraman zitun bere ondora.

Guraso gaixo aiek poz aundia artu zuten, beren oñaze gogorraren erdian, gure bersolariaren itzakin, eta, arren, bere biozkadak bersotan jartzeko eskatu zioten.

Eta bai ederki jarri ere!

Larrasoña'ko kristau  
elizkoi txintxoak,  
Anjel Zubillaga ta  
Mari Kruz gaixoak,  
aingeru eder oken  
bien gurasoak,  
gaur eskatu didade  
jartzeko bersoak.

Ara zer izan duten  
beren familian,  
nola bizi bai diren  
Jainkoan pakian:  
sei minuturen barnen  
bi seme argian,  
San Ramonen laguntzaz  
erditza batian.

Adan ta Ebak egin  
zuten pekatua,  
geroztikan jaiotza  
dago mantxatua;  
baño Jesus il bai zen  
gurutz-iltzatua,  
ara zergatik degun  
bataio santua.

Gaua pasatu eta  
bigaramonian,  
bataiatu ziraden  
beren parrokian,  
paratzeagatikan  
estadu obian,  
mantxa ori kenduta  
zerura bidian.

Lenbizi -jaio zana  
Anjel Sotero zan,  
iru egun buruan  
zerura igo zan;  
andik sei egunera  
anaia're juan zan,  
zori ederragorik  
etzaketen izan.

Orra zer zori duan  
bataioan gero,  
ezagera baño len  
emen il ezkerok:  
zeruko abogadu  
eta heredero;  
ok ola izango dira  
orain eta gero.

Au atsegin gozoa  
gurasoendako,  
baita're bataiatu  
zituztenendako,  
beren, senide eta  
aidearendako:  
gau t'egun erregutzen  
daude denondako.



Sabel alde bateko  
bi seme aingeru,  
Jesus ta Mariakin  
zeruan dauzkagu;  
egun batean alkar  
ikusiko degu  
eskuñeko bidetik  
segitzen badegu.

Ez dakit denak baño  
bai beintzat geienak,  
gurasoak umeaz  
izaten du penak;  
gaur berriz, zori-ona!  
aitak eta amak,  
baita're bataiatzen  
izan ziradenak.

Komeni da ikastea  
gauz ok nola diren,  
oroipena izateko  
beti denak emen.  
Jesus, sartu gaitzazu  
zeruan barrenen!  
Ala gerta dedilla  
guziokin, Amen.

## GOLDARAZKO ASTOAREN BERSOAK

«GOLDARAZ'KO ASTOAREN BERSOAK» ez dute itzaurre be-  
rrik. Leitzen ditunak, laister ikusiko du zergatik eta zetarako jarri  
zituena.

Auek, bere beste berso guzietan baino, barratu ta ospestu dute Euskal-  
Erri guzian Andrés Astiz'en izena.

Milla zortzireunda  
laroge-ita zortzi  
munduak salbatuta  
aurten deramazki;  
Jaunari eskatuta  
grazia lenbizi,  
gertaketa polit bai  
nai nuke adirazi.

San Anton bezpera zen  
aurten iru urte,  
askok ere gogoan  
idukiko dute;  
makiña batek parra  
azkar egin dute  
asto txiki txuri bat  
dela mediante.

Irurzun'en ferie  
zen egun orrekin,  
ara, gu joan giñen  
ganaduarekin;  
utsik baño obe du  
beti zerbaitekin,  
denok suertatzen dira  
nekazariekin.

Patrizio bistan zen  
kinkillero ori,





oiuz asi zitzaidan  
joatako berari;  
alkar saldatutzen  
ala giñen ari,  
asto,a aldamenean  
zeukan oiulari.

Eskuan billetiak  
zeduzkan saltzeko,  
astoa arratsaldian  
irrifatuzeko;  
erregutu ziraden  
nik ere artzeko,  
asto ori lenbailen  
netzat izateko.

Inazio deitu nun  
bela neregana,  
artuko ote giñun  
biok erdi-bana;  
etzela, ez, garesti  
biok sueldo-bana,  
bientzat izan zedin  
batek zeramana.

Billetiak neronek  
berexiturikan,  
bi sueldo pagatuta  
sartu nun patrikan;  
nongoa ta nor nitzan  
listan arturikan,  
gero, izan etzedin  
bai-ez oterikan.

Arratsaldeko iruek  
laurak bitartean,  
jendea batzartu zen  
Estanko'ko atean;

billetiak sarturik  
eltze motz batean,  
«publikoz» jokatu da  
guzion aurrean.

Bizente Otamendi  
erriko alkatia,  
orrek tiratu zuen  
astoa zoria;  
berak ere bai zuen  
jokuban jarria,  
berak lana eginda  
guretzat suertia.

Ogei t'iru numero  
joan ziran airian,  
gurea suertatu zen  
ogei ta laubian;  
egun da ogeitatik  
gu gera sarian,  
pastarako aberea  
pezt'erdi batian.

Kinkilleroak lista  
leitu zularikan,  
*Presente* egin nion  
aldamanetikan;  
billetiak bertantxe  
eskuraturikan,  
astoa nuen artu  
erramaletikan.

Bi jajoi eta arbalda  
zintxa bai ta manta,  
itxuraz bazedukan  
abere eder planta;



batzuk zeudeten parrez  
nerau berriz kantan,  
onela sartu giñen  
Bizenteren bentan.

Albukia eginda  
andik ateratu,  
jinetia're ona  
genduen billatu  
andre bat astogañen  
nik kopak pagatu,  
Latasa'ra onela  
giñen alderatu.

Matxikeneko Bentan  
iru bersolari,  
astoari begira  
kantuz giñen ari;  
astoa sano zegon  
ez baizegon eri,  
graziak emateko  
San Antoniori.

Trago bana edanda  
andik abiatu,  
mutil bat astogañen  
genduan paratu;  
beste lagun iruok  
atzetik kantatu,  
Goldaratz'a onela  
giñen allegatu.

Jendiak oarturik  
gure kantetara,  
bela atera ziren  
atarietara;

iñork etzun prisarik  
gu ere betara,  
geren astoarekin  
denok tabernara.

Astoak irets zitun  
maize ta belarra,  
gaixoak bazedukan  
zerbaiten bearra;  
gerok ogiarekin  
denok sardin zarra,  
trago bat egiteko  
ez janari txarra.

Asto zinzarri-soñun  
gerok berriz kantuz,  
Zapatanean sartu  
giñun alojatuz;  
kanta bai ta arrantza  
bazen fundamentuz;  
etxeke astoa're  
zegoan kontentuz.

Egun artan berian  
erostuna bazen,  
bereala saltzeko  
arrazoik etzen;  
lendabizi traperero  
erdaldun ori zen,  
irrifatu orduko  
galdeskan ari zen.

Amar duro eskatu  
lau arek agindu,  
traperero batendako  
naiko egiña du;



diferentzia beitzen  
ez giñen berdindu,  
berak uste zun baño  
geigo balio du...

Baldin traperoakin  
konpondu bagiñe,  
txarra izan bear zun  
astoaren fiñe;  
burni ta trapu zarra  
zata ta espartziñe,  
oen truke jabona  
misto ta sardiñe.

Bigarren erostuna  
Itsaso'koa zen,  
tabernaria zela  
berak esan zuen;  
feria pasatu ta  
sei egunera zen,  
ori're astoaren  
galdeska zetorren.

Egiteagatikan  
jaun oiei gustoa,  
aparejatu giñun  
majorik astoa;  
bost duro zun eskeñi  
prezio justoa,  
alde batera etzen  
eskeñi gaistoa.

Guliko ostalari  
pillotari ori,  
astoa ikustera  
bera zen etorri;  
onek ere eskeñi  
egin zuen garbi:  
lendabizi bost duro  
gero boste t'ardi.

Laugarren erostuna  
gallego Bizente,  
orrekin egin degu  
tratua dexente;  
ikus bai zun astoa  
belarriak tente,  
pozikan eman zigun  
dirua presente.

Pelaje txurie du  
jenioz fuertia,  
jon den udaberrian  
laugarren urtia;  
aixe ordainduko du  
egin dun kaltia,  
Aita San Antoniok  
diola suertia.

Orain Bizente dago  
astoaren jabe,  
naiz merkexago saldu  
gu pozikan gaude;  
ez bagaude aberatsak  
ez eta're pobre,  
bost duro badauzkigu  
gastutatik libre.

Ogeita zortzi bertso  
ok dira guziak,  
aprendiz batendako  
geiegi luziak;  
lagundu didalako  
Jaunari graziak,  
uts egiñak barkatu  
leitzale guziak.



## BERTSO BERRIAK ZAR BATEK JARRIAK

1922'garren urtean (ainbeste aldiz bezala) laster-apostu bat izandu zuten naparrokoak eta gipuzkoakoak.

Naparrak galdu izan bear zuan!

Berso, auetan, GOLDARAZ'KO BERSOLARIA, ia bizkarrian urte mordoxka zituela, joku edo apostuaren gora-berak utzita, arrokeri ta beste griña gaiztoren kontra konseju ederrak ematen dizkigu.

Donostiako Poiuelo'tik  
Mugerza dago kantari,  
Zarauz ta Aia bitarte ortan  
zer pasatu dan kontari;  
askorendako etzala ona  
laster apostu lan ori  
ego aizeak eraman dula  
napar orbela ugari,  
gaztearekin bear genduzke  
oien ordañak ekarri.

Esku beatzak ez daude berdin  
ori, da gauza jakiña,  
ez baita bear izaten ere  
abillidade berdiña;  
naparrak etzun iduki bear  
gorputzaldilla bikaña,  
modu orretan kontrarioak  
aise artu du tamaña:  
galdu dun batek esan dirade  
ez ta medikua baña.

Mugertzak dio izan dirala  
gaban aundi ta alkonak,  
sartziagatik beren patrikan  
ez dakitenen txanponak.  
Zeñen ederki egin dituzte  
trabes-gillian pregonak!

Bakoitzak bere opiziuba  
non-nai, badira gizonak;  
odolik gabe sangeratzeko,  
oriek, ai... zer peonak!

Laster-apostun asko galdu ta  
gabian berriz jokatu,  
bietan suerte txarra zubenak  
poltsa ederki bajatu;  
aberastera abiatu ta  
loteri txarra tokatu...  
Orain lana azkar egin dezagun  
eta piska bat sobratu;  
Pako Etxarri bezalako bat  
bearko degu billatu.

Ganaduk asko balio dute  
esneak berriz geiago,  
nekazariak ainbeste diru  
etzun izaten lenago:  
Larraun ta Araiz, Leiza ta Areso  
toki oberik, non dago?  
Gañera berriz apiziuban  
diperentzia badago,  
Euskal-Erriko apostularin  
korte guzia or dago.

Konseju onak ematen dira  
lan dago ezin egiña,  
diruba dabil ugari eta  
jendea berriz ariña;  
orretarako apiziuba  
ori da gauza jakiña.  
Utsa litzake oraingoakin  
eskarmentatzen bagiña!  
Bildur naiz laster asiko diran  
ekarri naian ordaña.



Banaketako obeak dira  
aposturako bideak,  
ez dakit nola galerazitzen  
ez duan ori legeak;  
familik ondo gobernatzeko  
esaten digu fedea,  
txorakeria irudi dute  
asko gizonen usteak:  
etxe askotan bizitzen gera  
nagusi praka gabeak.

Aitona zarra negarrez dago  
semiak, diruk galduta,  
etxeke andre nekez beterik  
barrendik oso aulduta;  
senarra berriz beti parrandan  
bere lagunak artuta,  
gobernadore balitz bezala  
zaldi beltzian jarrita:  
baita ondatu egiten dira  
baztar guziak galduta.

Aitona zarrak eskarmentatzen  
ari dirade ederki,  
batzuek beintzat ikusten ditut  
ez dabilzela egoki;  
bear baño len galonak eman  
bizi naian obeki,  
kaban dagon txorikumiak  
bela begiak idiki...  
obeki zuten gizagajo oiek  
zartari eskun iduki.

Gizon abillak esaten dute  
ez aritzeko jokuan,  
bizio txarrak sartzen dirala  
bere neurritik kanpuan;

bear diranak erosi eta  
sobratzen dana kolkuan,  
premin danari ordañez eman  
edo jar zagun bankuan:  
askoz obeto bizitzen baita  
bakoitza bere txokuan.

Ondore txarrak izan dituzte  
asko apostulariak,  
bolada batez ondo jan eta  
gustoko alperkeriak;  
agudo samar bajatzen dira  
oien abilidadeak,  
oriendako erretiruba  
diario'rik gabeak;  
titulorikan ez dute eta  
opiziale pobriak...

Bere bizia askok galdu du  
jokua dela medio,  
Modu orretan anima ere  
ibilliko zan serio...;  
tranze askotan ez baita erraz  
ematen erremedio;  
preziso bear dan garaietan  
gezurrak ez du balio...  
Oriek ola pasatzen dira,  
beste bat arte, adio!